



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko urtarrilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita lau urtarrilaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne.
Bilkurako idazkari izendatua izan da : PERUSANSENA Elodie.

Deialdiaren eguna : 2023ko abenduaren 22a

Afitxatze eguna : 2023ko abenduaren 22a

4. ERABAKIA: FIBRE 64-K PROPOSATZEN DUEN ZIBER-SEGURTASUNENKO GERIZA DISPOSITIBOAN BAZKIDETZEA.

(9.1nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio informatika segurtasunaren inguruko mehatxuak gero eta ugariagoak direla.

Hackinga, ransomwareak eta informatika datuen lapurtzea egiazko mehatxuak dira erakundeentzat. Administrazioak gero eta digitalagoak diren heinean, mehatxuak ere handitzen dira eta tokiko erakundeek beren informatika sistemak babestu behar dituzte. Izatez, segurtasun ezaren kostua (webguneen blokatzea, zerbitzu publikoen etetea, erakundearen datuak behin betiko galtzea, eta abar.) tokiko erakundeek beren segurtasunean inbertitzen dutena baino asko handiagoa da.

Horiek horrela, Fibre64-ek, Pirinio Atlantikoetako auzapezen ADM 64 elkartearekin eta Tokiko Kudeaketa Agentzia Publikoarekin (APGL), Pirinio Atlantikoetako herriak ziber-segurtasunean laguntzeko uraspidea diseinatu du.

Ziber-ibilbideak hainbat modulu ditu:

- hautetsien eta langileen sentsibilizatzeko modula,
- herriak ziber-erasoekiko duen esposizioaren autodiagnostikoa egiteko modula,
- Ziber-segurtasuneko soluzioen eskura ezartzeko modula, hala nola lau urratseko «bouclier cyber64» deitu ibilbidea, herri guzientzat urririk dena.

Auzapezak zehaztu du eraso gehien kontrako geriza dispositiboa lehen hiru urteetan urririk dela.

Izatez, Frantziako estatuak eta Fibre 64-k diruztatzen dute osoki garai horretan.

«Bouclier cyber64 » geriza sistemak tokiko erakundeek gehien pairatzen dituzten erasoak eta mehatxuak lantzen ditu: posta kontuetan sartzea, birus bidezko erasoak, datuen enkriptatzea, ransomwareak. 4 soluzio eskaintzen ditu: anti-spam, pasahitzen kudeaketa, datuak distantzian grabatzea, eta antibirusa.

Auzapezak herri biltzarkideei proposatu die La Fibre64-ren ziber-segurtasun soluzioak eskatzea, herriaren esposizioa nabarmen tipitzeko.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak erabaki du:

- Herria La Fibre64-ek proposatzen duen ziber-segurtasun urraspidean **ENGAIATZEA;**
- **BAIMENA EMATEA,** Auzapezari, herria « bouclier cyber 64 » dispositiboan bazkidetu dezan, honako webgunearen bidez <https://boucliercyber.lafibre64.fr>
- **BAIMENA EMATEA,** Auzapezari erantsia den hitzarmena herriaren izenean izenpetzeko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko urtarrilaren 4an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/01/08an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/01/08an.